

B

BARREN

Emugi proiektuko zerbitzuak martxan

TOKIKOM





San Frantzisko 60, behea - Tel.: 943 257 311

GOSARIAK:

Kafe hutsa	1,00 €
Kafe ebakia	1,10 €
Kafesnea	1,10 €
Kafea + opila	2,00 €
Ostiraletan, naranja zukua + kafea + opila	2,00 €



Ostiral gauetan musika dantzagarria, goizaldeko 04:00k arte!

Zapatuero DJ Techno, bertako Dj-ak, Dj Javierski eta Dj Alexander_M, 17:00etatik 00:00k arte!

TRAGOAREKIN TAPA DOAN!!



ileapaindegia-edergintza

San Bartolome 33, behea - Elgoibar
Tel.: 943 747 421

Ordutegia:
09:00 - 12:30 / 14:30 - 19:30
Astazken eta ostiraletan
etengabeko jarduna.
Larunbatak: 08-13:00



Edergintza tratamenduak

- LPG
- Laser Diodoa
- Solarium-a
- Akupuntura (BERRIA!)
- Mesoterapia (BERRIA!)
- Pilikosmezeutika ,
orban pigmentatuak (BERRIA!)

Ileapaindegia

- Astearteak erretiratuen eguna, %10eko deskontua ileapaindegi zerbitzuan.
- Asteazkenetan koloreztatzeak %10eko deskontua izango dute
- Ilearentzako azken belaunaldiko kosmetika, ur bipolarrarekin.

Gure inauguraziora etortzeagatik edergintza tratamenduetan eta ileapaindegian %10eko deskontua izango duzu.



Maialen Arnedo

Asteburu osteko buruko minak, nekea, nagia, iratzargailuaren doinu jasanezina, ohean bost minutu gehiago geratzeko gogoa... astelehenerokoa. Horrelaxe hasi dut oraingoa ere baina, burua martxan jarri dut berehala. Eta ez da goizeko kafeagatik izan, ez (lagungarri den arren).



Joanes Rodriguez

Klasean euskararen egoeraz hitz egiten egon gara gaur eta honen harira, administrazioak, hedabideek eta hezkuntzak jokaten duten paperaz egin dugu berba. Bestalde, gaur egungo euskararen egoera zein den ikusteko ikerketa ugari egiten ari dira eta guk, azkenengo emaitzek zer dioten ikusteko aukera izan dugu gaurkoan.

Datuok erakusten digutenaren arabera, gaur egun biztanleriaren erdiak ez daki euskaraz hitz egiten. Emaitza negatiboa, zinez baina, oraindik eta okerragoa hurrengoa: %70 inguruk erdaraz baino ez du hitz egiten.

Esandakoari begiratuta, konturatuko zinen, Joanes, badaudela hiztun asko, euskara jakin arren, erdaraz mintzatzen direnak. Aipatzekoa da, azken hogeita bost urteetan hobera egin duela euskararen egoerak, euskaraz hitz egiten dakiten hiztunen kopuruak gora egin baitu nabarmen.

“Geu gara, hiztunak, euskararen etorkizuna bermatzeko giltza”

Hala ere, gauzak ez doaz uste bezain ongi edo hala uste dut nik behintzat. Azken batean, datuak datu, kalean pasieran joan eta belarria erne jarritz, berehala konturatu baikaitezke euskarak ez dituela mingain asko astintzen! Geu gara, hiztunak, euskararen etorkizuna bermatzeko giltza eta gure borondaterik gabe ez goaz inora. Askok daukagu oraindik egiteko. Baina zer egin? Zein da konponbidea?

“Never plan to plan, only plan to do!” esan zidan orain gutxi unibertsitateko “coach” batek, hau da, ez planik egin planak egiteko, planak egin gauzak egiteko, egin! Gero eta mundu globalago baten aurrean gaude eta gauza guztiak beraien txokoa behar dute, baita hizkuntzek ere.

Euskararekin beti izan dugu arazo bat; lanabes politiko/estrategikoa izan dela, alegia konfrontaziorako aitzakia. Gazteleraren inguruan normaltasunez hitz egin beharrean, lehia bezala bizi izan dugu, guretzako, euskal hiztunentzat ala izan bait da, biziraupen borroka bat. Ez al da euskara hizkuntza bat baino gehiago guretzat? Ez al diegu kanpotarrei maitasunez eta itxaropenez azaltzen gure hizkuntzaren nondik norakoak kronika? Ez al da guretzat euskara festarako aitzakia? (egia esan, euskaldunok ez dugu aitzakia askorik behar festak antolatzen; krossak, mendi bueltak, asto-kakak...)

“Euskararekin beti izan dugu arazo bat: lanabes politiko/estategikoa izan dela”

Niretzat gutxienez, hizkuntza bat baino gehiago, DNAn daramadan zerbait dela esango nuke. Eta hori ezin da aldatu. Badakigu ez dela erraza, baina euskara beste gauza asko bezala, aukera bat da, norbanako bakoitzak egin beharreko bizi aukera; hizkuntza bat baino gehiago dena, kultura bati lotua, abestiei lotua, kondaira ugari lotua, ametsi lotua, urte asko borrokan daramatzen kondaira...

Eta horrela saldu beharko genuke, inposaketek ez bait digute inongo fruiturik emango. DNA erakargarria dela badakigu, horrela, gurea eginez munduari azaldu beharko diogu, edo? Ez al zaude aspertuta inkestetan oinarritutako burukominak izateaz? Ni bai, oso. Egin dezagun bidea, bada, prisarik gabe pentsatuz, baina geratu gabe ekin! Ni behintzat, bidelagun izango nauzu; etorriko dira besteak!

I. URTEURRENA

MILAGROS ETXEANDIA ZABALA

2010eko urriaren 19an hil zen.

“Urte gogorra pasatu da zu gabe baina beti egongo zara gure bihotzetan eta badakigu momentu txarretan bide onetik gidatuko gaituzula”.



PAUSO BAT AURRERA IRAUNKORTASUNEAN



Energia berriztagarriak, bideragarritasuna, kotxe elektrikoak, iraunkortasuna, car-sharinga. Berba ezezagunak ziren horiek guztiak, orain dela gutxira arte. Gaur ordea, eguneroko ogi bilakatu dira. Konferentziak edo hitzaldiak, edo albisteak eta lagunen arteko berriketaldiak tarteko, herritarrek badute gai horien berri. Orain baina, jakin ez ezik, praktikan jartzeko aukera bat gehiago izango dute elgoibartarrek. Dagoeneko martxan da Emugi proiektua eta bere baitan batzen dituen zerbitzuak herritarren eskura daude honez gero. Kotxe eta bizikleta elektrikoak dagokien herriko txokoa aparkatu dituzte langileek. Salgaien banaketarako furgonetak eta trizikloak ere prest dira lanerako. Erabiltzaileek zerbitzuei ongi etorria egitea baino ez da falta.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Martitzenean aurkeztu zuen Udalak Emugi proiektua. Horretarako, Udaleko ordezkariak ez ezik, Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko arduradunak ere izan ziren Elgoibarren, proiektu berritzaile honen lehen pausoen testigu. Euren alboan baina, enpresa eta hezkuntza munduko beste laguntzaile ugari ere izan zituzten instituzioek. Proiektuaren tamainari begiraturta pentsatu dezakegun moduan, aurkezpenak berak argi laga zuen: Emugi Elgoibartik sortu den arren, ez da Elgoibarrerako bakarrik sortu. Eta bertakoen lana ez ezik, beste askoren lan eta esperantzak ere badaude

Emugi hitzaren atzean. Miriam Montero Udaleko industria eta merkataritza teknikariak ere argi dauka "proiektu hau ez da sortu Elgoibarko herrian bakarrik geratzeko". Izan ere, bidea egiten hemen hasi badira ere, egitasmoa eskualdera zabaltzearen aldeko apustua egin dute arduradunek; aurrera begira, kotxe elektrikoak partekatzearen sarea zabaldu dadin inguruko herrietara.

Agenda 21 eta Elgoibar Berdea

Tokiko Agenda 21 prozesuaren bitartez hasi zen Elgoibarko Udala herriaren iraunkortasunaren alde lanean eta hasiera hartatik,

bederatzi urte igaro dira dagoeneko. Era berean, joan den urtean adostutako Elgoibar Berdea dekalogoak esandakoaren arabera, Elgoibarko Udalak salgaien eta pertsonen mugikortasun iraunkorra indartzeko apustua egin zuen.

Zer da Emugi?

Mugikortasun iraunkor hori indartzeko Udalak prestatu duen egitasmoa da Emugi. Zerbitzu desberdinak batzen ditu bere baitan, eta denen artean, proiektua arduradunek espero bezala garatuz gero, onura ugari ekarriko dizkio Elgoibari. "Proiektu integral"

Nafarroa plaza atzekaldean daude hamar bizikleta elektrikoak.

modura definitu zuen Monica Diaz Ente Vasco de la Energia-ko ordezkariak Elgoibarren egin zen aurkezpenean. Beste zenbait herritan jarri omen dira martxan antzerako proiektuak, Ataungo edo Zumaiako kasuak izan daitezke adibide egokiak, baina guzti horietan, Elgoibarren landuko diren gaien arteko bat bakarrik landu dute. Ataunen adibidez, partekatze kotxe elektrikoak jarri zituzten pasa den urtean, baina soilik Ataungo auzo batetik beste batera joateko. "Haiek egin zuten egin beharrekoa, baina hortxe geratu da dena. Ataunen. Ondo dago hori, baina guk Elgoibarren ez ezik, kanpora zabaldu nahi dugu egitasmo hau" azaldu du Miriam Montero Udaleko teknikariak.

Zumaian berriz, bizikleten partekatzerako sistema abiatu zuten, baina bizikletak ez dira elektrikoak.

Elgoibarren hortaz, denari heldu nahi izan zaio. Hasteko eta behin, proiektuarekin martxan jarri diren ibilgailu guztiak elektrikoak dira. Horrez gain, zerbitzu bakar batera mugatu beharrean, kotxe partekatuen, bizikleta partekatuen eta salgaien banaketaren esparruak asetuko ditu egitasmoak eta hori guztia gutxi balitz, uneoro Elgoibarrera begira bai, baina hemendik kanporako ikuspegiarekin ere lan egingo dute arduradunek.

Car-sharing

Guztiz elektrikoak diren Mercedes A klaseko bi auto daude herritarren eskura. Auto horien erabilera, partekatze sisteman oinarritzen da. Hau da, momentuan momentu, beharra daukan herritarrak erabiliiko du auto bakoitza. Betiere horretarako, autoa eskatu beharko da aurrez, behar denean okupatuta egongo ez dela ziurtatzeko.

Lehenengo eta behin, izena eman beharko du kotxeak erabili nahi dituenak. Udaletxera joan beharko du horretarako eta es-



katutako datuak eman eta proiektuan izena emandakoan, zerbitzua erabiltzeko moduan egongo da. Hala ere, ezinbestekoa da aurretik Emugiko arduradunek antolatutako ikastaro batean parte hartzea. Autoa ezagutzeko eta proiektuaren funtzionamendua ondo ulertzeko balioko du ikastaroak. Behin hori eginda, norberak bere etxetik, Internet bidez kotxeko ordua eskatzeko aukera ere badauka, udaletxeko bulegoetara joan beharrik izan gabe.

Bi auto elektriko eta hamar bizikleta elektriko alokatu ditzakete herritarrek

Aruak eta bete-beharrak ere badira noski. Partekatze zerbitzua den heinean, norberarena beste edo hobeto zaindu beharko dira-eta erabilgarri dauden autoak. Baina edozein araren aurretik, bada bete beharreko baldintza bat; hain zuzen ere, gidatzeko baimena izatea.

Goizeko 06:30etik 22:00etara bitartean egongo dira erabilgarri kotxeok eta epe motzerako alokatzea izango da ohikoena. Izan ere, kotxe elektrikoa horren hedatuta ez ego-

natik, oraingoz Elgoibarren bertan horretarako prestatutako lekuetan baino ez dira kargatuko autoak, eta hortaz, euren autonomia energetikoak ez du ahalbidetuko 130 km inguru baino gehiagoko bidaiak egitea.

Herritarrentzako eskuragarri dauden bi auto horiez gain, esan beharra dago dagoeneko Elgoibarko bi enpresek ere egin dutela egitasmo honen aldeko apustua eta auto elektriko bana eskuratu dutela beraien lanak egiteko. Horrez gain, bere beharrak asetzeko, beste auto elektriko bat hartu du Udalak.

Bike-sharing

Ibilgailu elektrikoek tiraka, bizikleta elektrikoak ere ekarri dizkigu herrira proiektu honen. Guztira hamar bizikleta daude herritarren eskura eta Nafarroa Plazaren ibai aldeko parkean, Udaltzaingoa bulego berriaren parean daude aparkatuta guztiak.

Zerbitzu honen erabilera ordutegia ere, kotxeenaren berdina da, eta baita funtzionamendua ere. Lehenengo izen-emate edo bazkidetza hori egin beharko da udaletxean, eta ondoren erabili nahi den bakoitzean eman beharko da horren berri. Kotxeekin bezala, bizikletekin ere ikastaro bat jaso beharra dago.

Zerbitzu hau erabiltzeko baldintzei dagokienez, car-sharingarekin alderatuz gero noski, bizikletak erabili ahal izateko ez zaio inori gida-baimenik eskatuko, baina bai 18 urte beteta izatea. Hasiara batean arraroa iruditu daitezkeen baldintza bat den arren, Miriam Monterori galdetuta azkar eman digu erantzuna: "Zumaian ere jarri zuten martxan bike-sharing egitasmoa. Bizikletak ez ziren elektrikoak baina funtzionamendua hemengo proiektuaren antzerakoa zen. Ez zuten 18 urteen muga hori ezarri, eta hilabeteen, zituzten zortzi bizikletak puskatu zititzaizkien; hain zuzen ere, gaztetxoek egindako erabilera eskasarengatik". Hura oinarri hartuta jarri dute Elgoibarko proiektua diseinatu dutenek, 18 urte beteta izan beharrendako baldintza hori.



Berrikuntza guztiak batzen ditu Mercedes etxearen auto elektrikoak.

Azken milia

Ezezaguna izango zen orain arte askorentzat *azken milia* delakoa. Bada, salgaien banaketaren azken kilometroari egiten dio erreferentzia. Horregatik entzungo dugu, Emugi proiektuaren baitan ere, behin baino gehiagotan.

Izan ere, herriko dendetara eta industria-guneetara bidaltzen diren paketeak, garraio enpresa desberdinek banatu ordez, Emugik jarritako furgoneta eta triziklo elektrikoaren bidez egitea da proiektuaren atal honen helburua.

Egunero-egunero salgaien banaketan diharduten enpresa ugariatako ibilgailuak sartzen dira herrira banaketa egitera eta berdin egiten dute industria-guneetan ere. Azken milia delakoarekin ordea, garraio-enpresa guzti horiek Emugiren lokalean utziko dituzte banatu beharrekoak eta ondoren, furgoneta eta triziklo elektrikoaren bidez egingo da banaketa.

Horrela, kamioi ugari herrira sartzea ekidingo da. Horrez gain baina, aurki, beste hirugarren ibilgailu baten laguntzarekin, dendek eta tabernek sortutako kartoia eta beira atez ate jasotzen hastekoak ere badira, ondoren garbigunera eramateko; horri eskerrak, edukiontzietan sarri sortu ohi diren arazoak gutxitzea espero dute ardura-dunek.

Meka ere, Emugin

Meka institutuak, salgaien banaketarako erabiliko den triziklo elektrikoaren prototipo bat egiten dihardu, aurrera begira, bertan produzitzeko asmoarekin.

Eta ez hori bakarrik. Institutuan horretan diharduten ikasleek gehiago eta lehen



Atez-ate denda eta tabernetako kartoia eta beira jasoko dituen ibilgailua.

TARIFAK



CAR-SHARING

Hiruhileko kuota: 12,50 euro

Erabilitako 5 min. bakoitzeko: 0,20 euro



BIKE-SHARING

Hiruhileko kuota: 6,25

Erabilitako 15 min. bakoitzeko: 0,25 euro

(15 minutuak igarota, minutuka kalkulatu da ordaindu beharrekoak)

* Tarifa zehatzagoak, eta arau-hauste guztien isunak ere, www.emugi.net atarian daude.

eskutik ikasi dezaten, ibilgailu elektriko bat ere badute bertan.

Errobera gaineko lehen pausoak baino ez dira hauek. Bide luzea aurretik. Ardura-dunek behin eta berriz aipatu duten moduan, poliki-poliki, pedalei emanez bezala, handituz joan behar duen proiektua da Emugi. Baina horretarako, ez dira nahikoa kotxe, bizikleta edo trizikloak. Elektrikoak badira bai, baina bakarrik batere ez dabil. Bateko edo besteko, pedalei eragingo dietenen beharra du egitasmoak. Zabalik ditu ateak herritarrek, eta ibilgailuak eskura.



Salgaien banaketarako erabiliko dituzten furgoneta eta trizikloa.

MUGIKORTASUNAREN ASTEA

Emugi proiektuaren aurkezpenari parean tokatu zaio Europako mugikortasun iraunkorraren astea eta hortaz, ekimen bereziak antolatu dituzte aste osorako.

Tartean, herriko eskoletako haurrek bide hezkuntzari buruzko tailerrak jaso dituzte eta Meka eta IMHko 18 urtetik gorako ikasleek ibilgailu elektrikoak probatzeko aukera izan dute.

Horrez gain, badira asteari amaiera emateko hiru zita ere:

- **Urriak 21, barixakua:** 17:00-20:00 Ibilgailu elektrikoari buruzko informazio stand-a Leku-Ederren (ibilgailuak probatzeko aukera).

- **Urriak 22, zapatua:** 10:00-14:30 Ibilgailu elektrikoari buruzko informazio stand-a Leku-Ederren (ibilgailuak probatzeko aukera).

- **Urriak 22, zapatua:** 10:00-14:30 Ekobira. Kutxak antolatutako kontsumo iraunkorari buruzko feria.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA**, **ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnal
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel
Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta,
Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi
Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari
Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-
1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:





ELGOIBARKO UDALA



MENDIAROKO UDALA



APEA APEA ELKARTEA



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

AHT EZ-Elgoibarrek EAJri

Gure mozioak eskatzen zuena: AHTren obrak gelditzea instituzioek ukatu duten parte hartze eta eztabaida soziala eman arte, demokratikoezia zuen botua merezi izateko? Urbinan jazotako polizi-indarkeria basatiaren gaineko isiltasunak ozenki adierazten du zuen bakezaletasuna.

Euskal gizarteak ez du eskatu Euskal Y-a. Aitzitik, ukatu egin zaio aukera hori. Ahaztu duzue debekuen gainetik 23 herrik ezezko borobila eman diotela zuen proiektu estrategikoari. Baita gehiengo sindikalak ere.

NATOn erreferendumak ipurdia agerian utzi zizuenetik -Eusko Legebiltzarraren gehien-goak baietz eta EHk ezetz- beldur diozue herriri galdetzeari.

Azal latza behar da AHTa "ongizate sozialaren lagungarri" izango dela esateko gizartea sufritzen ari den murrizketa amaigabeen aurrean.

Krisi/iruzur garaian eta gutxi batzuen onurako, EHko abiadura handian 10 mila milioi euro gastatzea ez da zentzuzkoa. Zuen benetako leloa:

"Jelkideen aberria dirua da" Euskadi ustiatzea helburua.

Leitzaran porlanetik salbatzen saiatzeari txarto deritoxue?

Guggenheim-aren arrakastaz ari zarete eta herriak sortutako kulturaz blai zegoen Kikutza kupidarik gabe birindu duzue.

Baliteke EAJ Alzheimerrek jota egotea eta ez gogoratzea esandako ergelkeriak: Arzalluzen "Lemoniz o las cavernas" edo Lopez de Gereñu, egun patronalaren bozeramaileak AHTa errepideko garraio arazoaren konponbidetzat jotuzue.

Elgoibarko lau hautesletik batek besterik ez dizue eman botua (eta zalantzak dauzkagu nahiago duten AHTa edo anbulategiko urgentziak), beste hirurak ez dugu inongo konfiantzarik zuegan. Utzi harrokeriak batzokirako.

AHT EZ - Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Zabalik da Mintxetako spinning gela berria eta martxan dagoeneko, hoguei bizikleta erosi-berriak

Lehen spinning-erako erabiltzen zen gela 'Walking' izeneko jarduerarako erabiliko da

Joan den barixakuan zabaldu zituen ateak Mintxetako spinning gela berriak. Bi orduko jardunaldi batekin eman zitzaion estreinaldia gelari, eta horren aurretik, udal ordezkariak ere izan zuten bizikletak probatzeko aukera.

Berrikuntzak batean eta bestean

Berrogei bizikleta daude gelan, eta erdiak erosi berriak dira. Horrekin batera, ikusgarria da gelan jarritako pantaila erraldoia ere. Hiru bider bi metroko pantailak lagunduko baitie kirolariei egin beharreko lana arintzen. Horretaz gain, gela berria denez, berriak dira argia eta soina ere, bereziak, eta spinningerako aproposak. Guztira 152.000 euroko kos-



Arg.: www.elgoibar.org

tua izan du gelak eta dagoeneko, horretarako erabiltzen zen gela zaharrak ere badauka funtzio bat. Hain zuzen ere,

walking deritzoten jarduera egiteko prestatu baitute, eliptika deitzen diren aparatuekin hornituta.

Kontzertu akustikorako sarrerak salgai daude



Arnaldo Otegiren aldeko herri plataformak, dagoeneko salgai jarri ditu datorren egunean, urriaren 27an, Herriko Antzokian egingo den kontzertu akustikorako sarrerak (Pitxintxun, Garaten, Iturrin eta Lanbroan). 25 euro balio ditu sarrerak, eta egunean bertan ere jarriko dira salgai azken ehun txartelak. Arnaldo Otegiren aldeko plataformako kideek, orain hilabete inguru kaleratutako Arnaldoren kontrako epaia salatzeke ere erabili dute kontzerturako deialdia eta bat egin dute Brian Currinek bere momentuan epaiari jarri zion "eskandalagarri" balorazioarekin. Kontzertuari buruzko informazio guztia www.arnaldotegi.com atarian dago esku-ragarri.

Elgoibarko odol emaileak omendu dituzte

Hauek dira joan den astean, Elgetan omendutako elgoibartarrak: Esther Arakistain, Jose Araujo, Arantza Astiazaran, Miguel Anjel Castro, Imanol Cerdeira, Jose Maria Diez, Emilio Fernandez, Maria Pilar Fernandez, Beatriz Fernandez, Jon Goikoetxea, David Mekolalde, Alfonso Migales, Merche Muruamendiaraz, Iñigo Oñederra, Resti Rodriguez, Amaia Uranga, Demetrio Viñaras, Maite Barruetabeña, Maria del Pui Bilbatua, Jesus Alvarez, Jose Astigarraga, Manuel Astray, Ricardo Diego, Matias Hernandez, Jose Luis Mujika, Jose Antonio Murua eta Jesus Urizar.



Berrikuntza **IMHko eguzki-autoa**



2010. urte amaieran hasi zen IMH hasiera batean sortutako eguzki-autoaren prototipoari egokitzapenak egiten, eta joan den asteburuan prototipoa Murtzian egindako Solar Race kontsumo jasagarriaren lehia-ketan probatu zuten. 2012an, prototipoari hobekuntzak eginda, Alemanian jokatu den beste batean probatzeko asmoa dute.

Gertakaria **Kobrea lapurtzeko saiakera**

Urriaren 12an, iluntzean, Basarte eta San Roke auzoetako argiteriatik kobrea lapurtzen saiatu ziren. Udaltzainek, baina, bertan behera laga zuten lapurreta saiakera. Kobrea osu ahal izateko Basarte eta San Roke auzoetako argiteriako kable elektrikoa moztu zuten zenbait ezezagunek. Herritar baten abixuari kaso eginez bertara joan zirenean ohartu ziren udaltzainak, kableak moztuta zeudela. Lapurrek ez zuten kable barruko kobrea ateratzeko astirik eduki. Udaltzainburuak jakinarazitakoaren arabera ez da horrelako lapurreta saiakera bat bertan behera lagatzen duten estreinako aldia.

Lekua **Ibai bazterrak**

Deba ibaiaren inguruak garbitu nahi ditu Debegesak eta horretarako, herritarren parte hartzea eskatu du. Bi egitasmo jarri ditu martxan erakundeak. Alde batetik, ibai-bazterrak garbitzeko, dauden hondakinak edo eta zikinkeria jasotzeko egun bat zehaztu du: azaroaren 13a. Debegesara deitzea nahikoa da parte hartzeko.

Bestetik, landare inbaditzaileen hazkundera ere geratu nahi du Debegesak eta horretarako lehenengo eta behin, non dauden jakin beharra dauka, eta informazio horrekin mapa bat egin. Hortaz, herritarrei informazioa emateko eskatu die.



Txandakako prestakuntzari buruzko nazioarteko biltzarra IMHn

Europako unibertsitate ugari-tako esperientziak bilduko dituen biltzarra egongo da datorren astean IMHn, IMHK berak eta EHUk antolatuta. Txandakako prestakuntza izango da bereziki landuko duten gaia. Horrekin batera, biltzarraren lehen bi egunak barnera begirakoa izango diren arren, hirugarren egunean ekitaldi ireki baterako astia ere hartuko dute bertaratutakoek, eta horretarako, EHUko errektore ordea ez ezik, hezkuntza eta berrikuntza munduko beste ordezkari ugari bilduko dira Elgoibarren.

Bularreko minbiziari aurre hartzeko informazioa

Bularreko minbiziaren nazioarteko eguna izan zen urriaren 19an, eguaztenean. Minbizi mota horri aurrea hartzeko lanean diharduen Kattalin elkarteak mahai informatiboa jarriko du, zapatu honetan (urriak 22), King-Kong azpian. Minbiziaren aurkako borrokarako diru-biltzea ere egingo dute, 10:00etatik 13:00etara.

San Migelgo Txekorraren zozketak badu irabazlea

Agarretxo baserriko Mari Carmen Iturzaeta azkoitiarrak irabazi du San Migelgo jaietako errifekin zozketatu zen txekorra. 8.465 zenbakia izan da saria jaso duena. Argazkian, irabazlearen semea eta senarra ageri dira jasotako txekorrarekin.





Asto-kaka, jokoa baino askoz gehiago

Jokoa izaten hasi zena, asteburu osoko jai bilakatu zen. Astoaren kaka aitzakia hartuta elkartu ginen Leku-Ederreko karparen aterpera. Behin festa hasita, ia-ia ahaztu ere egin genuen astoa! Barixaku gauean, Aitor Guisasola antzezleak esan zuen moduan, *Elgoibarko izar* ugari tabladu gainean ikusteko ohorea izan genuen. Musikari, antzerkilari eta margolari artean berotu zuten gaua. Zapatuan ere, astoak noiz kaka egingo, makina bat herritar batu ziren Plaza Txikiaren inguruan; eta beste hainbeste gertatu zen baba-janean edo Mp5 taldearen erromerian. Inoiz jandako babarik onenak probatu omen zituen batek baino gehiagok eta zer hoberik, dantza egitea baino, horrek denak arintzeko. Azken batean, denak gustura. Hara gerturatutakoak pozik, eta antolatzaileak zorutzen, herritarrak pozik ikusita. Hortaz, beste behin ere, astoari diar egiteko moduan.



Miren Narbaiza, Napoka Iria.

Kiribilek ere astoa ekarri zuen lagun.



1. saria 1.871 zenbakia
Irabazlea: **JASONE OSORO**

2. saria 3.069 zenbakia
Irabazlea: **ANDER ZULAIKA**

Zorionak bioi!



Kondesak ez zuen kakarik egin Plaza Txikian egon zen denboran. Txomin Arriolak erretiratu zuen plazatik.





Ion Gurrutxaga.



Aitor Guisasola, antzezlea.

Nestor Fuentes
'Txis', K104.



130 lagun
inguru batu
zituen baba-
janak Leku-
Ederreko kar-
pan.



Mp5 taldearen erromeriak girotu zuten bazkal-ostea.



Lander Larrañaga topografoak astoak kaka non egin zuen esan oste-
an, Jaşone Osorok 1.871 zenbakiaren jabeak jaso zuen 2.000 euroko
lehen saria Iñaki Konde Elgoibarko Izarrako presidentearen eskutik.

Dagozkien sakra-
mentu guztiek
iritsi ziren babak
mahaira.






Errotondetan ezin da aparkatu: “Errotondetan aparkatzeko baimena daukagun

Euskal Herriko herri bakarra garelako dirudi. Udaltzainek zergatik ez diete isunik jartzen errotondetan aparkatzen duten ibilgailuei? Noiz arte jasan behar dugu ohitura arriskutsu hori? Zerbait larria gertatu arte?”.



Xixilion kaleko zorua asfaltatu beharrean dago: “Olasoko errotondatik herrirako sarbide berria egin zutenean Xixilion ingurua asfaltatzeko aukera paregabea galdu zutela uste dut. Enpresa eta komertzio ugari daude bertan, eta errepidearen asfalto oso egoera txarrean dago, zuloz beteta. Errepidean dauden estoldak ere bidetik kendu eta aparkalekuetara lekuz-aldatu beharko lituzkete, gidatzerakoan enbarazu handia egiten dute-eta”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarzarra.com 943 744 112

ESKERTZA



Ma CARMEN PEÑALBA ARRIETA

2011ko urriaren 17an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



Ma ANTONIA PORTILLA PERELLO

2011ko urriaren 17an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



GUILLERMO GARCIA MORTALENA

2011ko urriaren 18an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Azaroaren 2an hasiko dira mendiaren inguruko emanaldiak

Bost emanaldi prestatu ditu Morkaikok

Morkaiko mendizale elkarteak bost mendi emanaldi eskainiko ditu aurten, Asteazketan Mendi Emanaldiak izeneko zikloan. Udaberitik udazkenera aldatu dute aurten hitzaldi zikloa. Azaroaren 2an izango da lehenengo saioa, eta bertan, Asier Arrieta, Edu Uribe eta 'Txelu' elgoibartarrek "Ehun Milak" proban bizitakoak kontatuko dituzte. Azaroaren 30era arteko eguaztetan izango dira hitzaldiak, 21:30ean hasita, musika eskolako auditorioan.



Basueta eta Portu nagusi 10Bai txapelketan



10Bai taldeak antolatutako biñakako pilota txapelketako finala bi zatitan jokatu behar izan zuten. Izan ere, Basueta eta Portu 16 eta 11 aurretik zirenean euria hasi eta bertan behera laga behar izan zuten finala. Hala, joan den aste-martitzenean amaitu zuten partidua lau protagonistek. Karmelek eta Gerrik ezin izan zioten markagailuari buelta eman eta 17 tantotan laga zituzten txapeldunek, Basuetak eta Portuk.

Mendiko motorren txapelketa idotorben

Idotorbeko zelaietan jokatu da, datorren urriaren 30ean, domekan, mendiko motorren Euskadiako txapelketa, Elgoibar-ko I. Croscountry Txapelketa, alegia. Zalla moto klubak antolatu du txapelketa Txusko moto klubaren laguntzarekin. Antolatuzaileek aurreratu dutenaren arabera, 100 bat motorzale inguruk parte hartuko dute proban. Ikuskizuna ziurtatuta dagoela gaineratu dute eta zale eta herritarrei Idotorbera igotzeko gonbitea egin diete. Goieko 11:00etatik 13:30era jokatu da txapelketa eta 14:00etan izango da sari banaketa.



EMAITZAK

FUTBOLA

Basconia 2 – Haundi 0 (3. maila)
 Trintxerpe 2 – Elgoibar 3 (Ohorezko maila)
 Bergara 3 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)
 Elgoibar 9 – Soraluze 0 (Kad. A)
 Aloña Mendi 4 – Elgoibar 2 (Kad. B)
 Elgoibar 2 – Zumaia 1 (Erreg. neskek.)
 Elgoibar 5 – Arrasate 8 (Alebinak)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 22 – Igeldo 22 (1. mailako nag.)
 Lagunak 22 – Bergara 11 (2. mailako nag.)
 Lagunak 19 – Intxurre 12 (1. mailako jub.)
 Urnieta 22 – Lagunak 5 (2. mailako jub.)
Pala
 Ategorrieta 15 – Lagunak 25 (3. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Castro F.S. 1 – Concepto Egile Elg. 2 (2.B)

ESKUBALOA

Alkorta Elg. 27 – Corazonistas 26 (Sen. mut.)
 Tecnifuelle 38 – Muskiz 16 (Sen. neskek.)
 Usurbil 32 – Beristain Elg. 17 (Jub. mut.)
 Zuazo Barakaldo 24 – Lauko Elg. 30 (Jub. neskek.)
 Aiadek Pulpo 34 – Grupo Eibar 31 (Kad. mut.)
 Zuazo Barakaldo 26 – IMH Elg. 19 (Kad. neskek.)
 Astigarraga Elg. 17 – Ordizia 17 (Kad. neskek.)
 Bankoa Elg. 15 – H. Txarriduna 26 (Inf. mut.)
 Iklus Elg. Eibar 15 – Aterpe Elg. 6 (Inf. neskek.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 22

19:30 Concepto Egile Elg. – Zaragoza (2.B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 22

12:00 Elgoibar – Ilintxa (Kad. B)

17:00 Haundi – Portugaleta (3. maila)

19:15 Elgoibar – Tolosa (Ohorezko jub.)

Domeka, 23

12:00 Elgoibar – Bergara (Ohorezko inf.)

16:30 Elgoibar – Hondarribia (Ohorezko maila)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 22

11:15 H. Txarriduna Elg. – Pulpo (Inf. neskek.)

12:30 Grupo Eibar Elg. – Eibar (Kad. mut.)

16:00 IMH Elg. – Urdaibai (Kad. neskek.)

17:30 Lauko Elg. – Urdaibai (Jub. neskek.)

Domeka, 23

10:30 Beristain Elg. – Urola (Jub. mut.)

ESKU PILOTA

Barxakua, 21

22:00 Lagunak – Gailurrerantz (2. mailako kad.)

22:00 Lagunak – Zazpi-Iturni (2. mailako jub.)

EÑAUT ELORRIETA

Ken7 taldeko abeslaria

Datorren egunerako Kontzertu akustikoa antolatu du *Arnaldo Askatu Politika Askatu* plataformak. Euskal Herriko musikari ugari batuko dira Herriko Antzokian; musika dute tresna, helburua, Arnaldo Otegiren askatasuna. Beste askorekin batera kontzertu horretan izango den Eñaut Elorrieta Ken7ko abeslariarekin egon da BARREN, datorren asteko kontzertuaren inguruan ez ezik, euren lan berriaren gainean ere jardun dugu.



“Arnaldoren askatasunak Euskal Herrian bizi dugun egoerari inpulstu handia emango lioke”

Arnaldo Otegiren aldeko kontzertuan joko duzue zuek ere. Zergatik?

Gu, gure herria eta hizkuntzarekin konprometitu gaude. Arnaldoren atxiloteta, hainbatena bezala, Euskal Herrian oraindik bide eta helburu politiko guztiak zilegi ez direnaren eta gobernuen ahultasun politiko eta demokratikoaren irudi da. Bere askatasunak Euskal Herrian bizi dugun egoerari inpulstu handia emango lioke. Eta beste hainbat arlorentzat bezala, musikagintza eta euskararentzat ona izango dira bide honek ekarriko dituen fruituak.

Kontzertu akustikoa izango dela dio karte-lak. Nola erantzungo dio Ken7k akustiko izate hori?

Gitarra eta ahotsarekin arituko gara soil-soilik. Hainbat talde batu gara kontzertu honen bueltan eta ezin dugu bakoitzak bere azpiegitura guztia ekarri. Elkargune eta aldarrikapen gau xume bezain ederra izango dela

uste dugu. Kantatzea hortzak erakusteko beste era bat baita.

Plaza ugartan entzun zaituztegu azken aldian. Baina plazan edo datorren astekoa bezalako aretoan, non dihardu gusturago Ken 7k?

Bakoitzak badauzka bere berezitasunak. Kaleko kontzertuak intentsuagoak izaten dira, aretoetakoak aldiz gertuago eta zainduagoak. Udan kalean gusturago eta aretoetan neguan.

Hamabost urte bete dituzue dagoeneko. Baina beste lan berri bat duzue esku artean. Berritu ala hil?

Ikasten jarraitzeko desikasten ere ikasi behar da, ez da beti erraza izaten, baina pixka bat hil behar zara biziberritzeko, aurrera egiteko, norbere bidean eboluzionatzeko. Ono funtzionatu diguten joera eta errekurso batzuk atzean uztea ezinbestekoa izan da berriak aurkitzeko bidea serio egiteko. Hori

egiteko ausardia eta gaitasuna galtzen dugunean bukatuko da gurea ere.

“Sugeak azal berrian jartzen diren bezala” sentitzen zaretela irakurri dut. Zer zeukan berezitik azal zaharrak, eta zer dauka berriak?

Azal zaharrak ondo babestuta sentiarazten zaitu, berriak ez dakizu inoiz nahi beste berrotuko zaituen, baina sentipen horrek bizirik eta erne iraunarazten zaitu.

Ez da erraza izango horrenbeste urtean proiektu berari tiraka, horren osasuntsu iristea hamabost urte betetzera.

Ez da birtuoso batzuk garelako, konpromiso eta lan handia exigitu digu. Pasio handiz bizi dugu musika, irrika horrek mantendu gaitu hor. Ez dakit jendea orokorrean kezante den atzean dagoen lanaz, argazki sulerenteeekin eta zelofan paperez saltzen gaituzte, baina izerdi asko dago disko baten atzean.

Haritzeko dantzariak Arriagan egin dute dantza Argia dantza taldearen 'Aunitz urtez' ikuskizunaren baitan

Iruñeako Duguna eta Eibarko Kezka dantza taldeek ere hartu dute parte ikuskizunean

Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean Argia dantza taldearen 'Aunitz Urtez' ikuskizuna aurkeztu zuten joan den domekan Bilbaoko Arriaga antzokian, eta bertan izan ziren Haritz dantza taldeko hamazazpi dantzari ere.

Ezpata dantzak eta ingurutxoak

Iruñeako San Fermin Aldapakoaren ezpata-dantza batetik, eta Arrateko Amaren ezpata-dantza bestetik, ezin protagonismorik kendu horren maiteak diren dantzei. Alabaina, beste horrenbeste dantzak ere izan zuten lekua domekan, Arriagako oholntza gainean. "Irradaka", Erronkariko "ttun-ttuna" edo eta "erregelak" tarteko.



Juan Antonio Urbeltz izan dute zuzendari, baina horrez gain, Maria Arregiren zuzendaritza musikalak ere gidatu du nolabait ikuskizuna. Elgoibarko dantzariak gustura itzuli ziren etxera Bilbaon bi-

zitakoarekin. "Edozein ekitaldik badu ere bere xarma, urduritasunak pizteko garra eta ikusleen txalo-hotzen dosi on bat, Bilboko Arriaga antzokian dantzatzek guzti hori biderkatzeko gaitasuna du".

Abenduaren 16an izango da 'Elgoibar Urban Show II' ikuskizuna



Joan den urtean antolatu zuen Dance and Smile dantza eskolak 'Elgoibar Urban Show' ikuskizunaren lehen edizioa, eta emaitzarekin gustura, urteroko ekimen bilakatu dute. Hala azaldu zuen Maria Escobedo arduradunak, ikuskizunaren aurkezpenean.

Joan den urteko arrakasta aipatzearekin batera, eskerrak eman zizkien hura antolatzen jardundakoei eta aurten ere animatzeko deia egin zien iaz gustura geratu ziren guztiei. Hain zuzen ere, konpainia oso onak datozela azpimarratu zuen Escobedok: *D'Block the on stage company* lehenengoa, Alicantetik bigarrena *In Situ*, *Dance day* kantabriarrak eta azkenik, *Dance and Smile* elgoibartarrak. Horiekin batera baina, aurten Jon Gama diseinatzaile grafikoa ere izango da ikuskizunean.

Informazio guztia www.danceandsmile.com atarian dago eskuragarri.

Perurenaren hitzaldia ikastolako ikasleentzat

Udalak eta Elgoibarko Izarrak, Institutuarekin eta Ikastolarekin elkarlanean programazio berezia antolatu dute, eta horren baitan, Iñaki Perurenaren 'Harri eta herri' hitzaldia jasoko dute Ikastolako DBHko ikasleek datorren astean.

'Izanaren izena', azken hitzaldia datorren astean

Jesus Mari Makazagak eskaini zuen pasa den eguaztenean 'Izanaren izena' hitzaldi zikloko bigarren saioa, eta Mikel Gorrotxategirenak itxiko du zikloa. Makazagak, Elgoibarko ahozko berbetaren inguruan berak idatzitako liburua aurkeztu zuen hitzaldi gela betearen aurrean.

Mikel Gorrotxategik emango duen 'Amaia, debekatuta zaude! euskal izen-abizenen historia' eguaztenean izango da, 19:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

LANA

ESKAERA

- Lehen hezkuntzako magisteritza duen neska, LHko partikularrak emateko prest. ☎ **637 258 819**
- Ingeleseko partikularrak ematen ditut. Bakarka edo taldeka. First mailara arte. ☎ **626 419 354**
- Emakume euskalduna umeak zaintzeko prest. 16:00-19:00. ☎ **687 693 290**
- Lana behar dut. Zaintzan eta garbiketan esperientzia daukat. ☎ **689 847 947**
- Zaintza edo garbiketa lanetan orduka aritzeko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea orduka lana egiteko prest. ☎ **636 581 194**
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest, elkarteak, etxeak edo lokalak garbituko nituzke. ☎ **630 372 882**
- Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **699 232 823**
- Gizonezkoa tabernan zerbitzari edo eraikuntzan lan egiteko prest. ☎ **689 974 001**
- Emakumeak interna edo orduka lan egingo luke. Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **699 813 826**
- Gizonezkoa lan bila. Baserri lanetan eta eraikuntzan esperientzia handia. ☎ **685 212 060**

- Emakumea pertsona nagusiak zaintzen orduka lan egiteko prest. ☎ **685 212 060**
- Mutil arduratsua eta esperientziaduna, tabernan lan egiteko prest. ☎ **692 332 871**
- Neska lanerako prest. Etxeko lanetan eta umeak nahiz nagusiak zaintzen esperientzia. ☎ **609 148 861**
- Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. ☎ **608 474 923**
- Garbiketa eta zaintzak egiteko prest nago. orduka edo eta interna. ☎ **943 741 909**
- Garbiketa, zaintza eta beste edozein lan egiteko prest nago. Orduka. ☎ **618 052 967**
- Emakumea lana egiteko prest. ☎ **618 052 967**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Bi edo hiru hilabetetarako pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **650 551 222 - 627 296 885**
- Logela bakarreko apartamentua alokagai Erosario kalean. Altzariekin. ☎ **629 415 984 (18:00etatik aurrera)**
- Alokairuan pisua hartuko genuke Elgoibarren. Senar emazteak eta hiru seme-alaba. ☎ **689 847 947**

SALMENTA

- Etxea salgai Elgoibarren. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta ganbara. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. ☎ **648 191 076**
- Etxe berria salgai Urruzunon. Hiru logela, bi komun, egongela-jangela, terraza eta sukaldea altzariekin. ☎ **676 404 365 / 669 621 164**

GARAJEAK

- Bi garaje alokatzen / saltzen dira Leku Eder eta Jausoro plazan. ☎ **652 727 631**

BESTELAKOAK

- Canon EOS 500D + 18-55 S reflex digitala salgai. KIT osoarekin (bigarren bateria, tripodeta, parasola, poltsa, lentea garbitzeko kit-a ...) 450 euro. (Negoziazgarria) ☎ **667 307 196**

KINTOAK

- 1966an jaiotako enafaria azaroaren 12an. Txarriduna jatetxean. Azaroaren 4a baino lehen, 35 euro ingresatu 3035 0007 27 0071018816 kontu korrontean. Anima zaitzete! ☎ **619 966 434**
- 1972an jaio eta Aita Agirre eskolan ibilitako enafaria. Azaroak 5ean Eibarko sagardotegian. Anari (619 966 434) edo Elenari (678 437 633) deitu urriaren 31a baino lehen.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.
Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)
Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro
 Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

Zure semeak ondo ikusten duen seguru zaude?

FEDEROPTICOS IKUS-en ikusmen azterketak egiten ditugu, begi alferra, desbideratzea edo ikusmen txarra antzemateko, eta era berean, ikasketa arazo posibleak eragozteko.

FEDEROPTICOS IKUS
 Jose de Arizotxa kalea, 10
 Tel: 943 157 574 - AZPIERTIA
 San Bartolome kalea, 10
 Tel: 943 743 734 - ELGOIBAR



PINTURAK
 PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixillon, 2 - 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



RUSO Ganadutegia

Zezenak, befitzuak
 Unesentzako jaiatutak (zazentxoak eta poniak)

Jabier Mugerza
 Makibar basemia (Elgoibar)
 Tel. 626 34 31 16
 ganaderiaeruso@gmail.com





• Zorionak, **Ainhitze**, gaur 11 urte bete dituzulako. Musu handi bat familiako guztion partez.




• Zorionak **Iker**, zure bigarren urtebetetzean. Musu bat, denon partez.



• Zorionak, **Nahia**, atzo 10 urte bete zenituelako, musu asko familiakoen partez.



• Zorionak **Ayelen**, astelehenean 4 urte beteko dituzulako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Aitor**, astelehenean 6 urte bete zenituelako. Musu bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Nora**, asteartean 7 urte bete zenituelako. Familiakoen eta bereziki zure ahizpa Aneren partez.



• Zorionak, **gure moztardari** bere 3. urtebetetzean. Familiakoen partez eta bereziki Liberen eta Andoniren partez.



• Zorionak, **Lidia Uriartel** Ondo pasa zure egunean. Musu asko koadrilaren partez.



• Zorionak **Printzesa**, datorren astelehenean 4 urte egingo dituzulako. Musu handi bat aitaxoren eta amatxoren partez.



• Zorionak, **Xuban**, zure bigarren urtebetetzean. Musu handi bat etxeko danon partez!



• Zorionak, **Jone!** Etxeko txikiak urtea bete du! Musu potolo bana, Ane, Maddi, Mikel eta beste guztion partez.



• Zorionak, **Nai!** Bixar urtetxo bat! Musu handi bat politx hori! Bereziki, Aneren eta zure lehengusinen partez!




• Zorionak, **Amama Fos!** Horrela jarrai dezazula, "ideal" zaude-eta! jaja. Musu handi bat, batez ere Xubanen partez.



• **Duna eta Edith**, zorionak urriaren 25ean eta 26an 4 eta 2 urte beteko dituzuelako. Patxo haundi bana. Maite zaituztegu!



• Zorionak **bikotel** Azaroaren 2an urtebete eta 2 urte egingo dituzuelako. Familia guztiaren eta bereziki Ekaitzen partez.



• Zorionak **bikotel** Orain arte bezain jator jarraitu ezazue. Etxeko guztien partez.

OSPAKIZUNAK KINTOAK



Urtetik urtera hobeto pasatzen dugu. Ea horrela izaten jarraitzen duen urte askoan. Non dago Txanpi?



Ostiral honetan

LUDORI AGUR FESTA

Ludotekan: merendola, jolasak eta disko festa. Zain gauzkazu!

ORRAZKERA IKASTAROA

antolatu dugu Gaztelekuan.
Izen ematea zabalik dago.
Informazio gehiago Gaztelekuan



21 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka Leku-Ederren

Elgoibarko Izarrak antolatuta, 2tik 6 urtera arteko umeentzako eta haien gurasoentzako egitasmoa.

Musika

18:30 Kale-kantarien entsegua sotoan

Udal zerbitzuak

17:00-20:00 Emugi-ri buruzko informazioa Leku-Ederren.

Ibilgailu elektrikoak probatzeko aukera eta zerbitzuari buruzko informazioa egongo da.

Erakusketa

18:30-20:30 Egur Arte Tailerra

Tailerrean egindako lanen erakusketa urriaren 20tik 30era, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

22 zapatua

Ekologia

10:00-14:00 Ekobira Plaza Handian

Produktu ekologikoak eta artisau produktuak egongo dira ikusgai. Udalak eta Kutxak antolatuta.

26 eguaztena

Hitzaldia

19:00 "Amaia, debekatuta zaudel! Euskal izen eta deituren historia"

Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Udaleko euskara sailak eta Elgoibarko Izarrak antolatuta.

27 eguena

Bilera

19:30 Asis Sarea

Hileroko bilera egingo du Asis sareak Santa Klaran.

Musika

19:30 Amaldo Otegiren aldeko Kontzertua

Gose, Kerobia, Ken7, Zea Mays, Napoka Iria, Mikel Urdangarin, Asier Serrano, Rafa Rueda, Ion Gurrutxaga, Oreka TX, Esne Beltza.

FARMAZIAK (24 orduz)

- 21 Ibañez
- 22 Fernandez (goizez Etxeberria Erros.)
- 23 Fernandez
- 24 Yudego
- 25 Ibañez
- 26 Etxeberria (Santa Ana)
- 27 Fernandez
- 28 Garitano

OKINDEGIA

- 23 domeka EIZAGIRRE
- 25 martitzena FOTERO

Fernandez- Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez- Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta- Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«El hombre de al lado»

21, barixakua: 22:15
22, zapatua: 19:00/22:15
23, domeka: 19:00
24, astelehena: 21:30

«Harry Potter y las reliquias de las muerte 2»

23, domeka: 16:30
25, martitzena: 19:00



2008ko azaroaren 12an hil zen.
III. URTEURRENA

ANGEL GARATE ALBIZU eta ARRATE GARATE ZENDOIA

*Hiru eta bederatzi urte ez dira ezer,
baina zuek gabe luze joan dira.
Beti zaudete gure bihotzetan:
ama eta etxeko guztiak.*



2002ko urriaren 27an hil zen
IX. URTEURRENA

Meza urriaren 22an, zapatuan, izango da arratsaldeko 19:00etan
Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

Doimak

Makina erremintan diharduen DOIMAK S.A.
enpresa elgoibartarrak honako lanpostua
betetzeko deialdia egiten du:

- Ingeniari elektronikoa, elektriko/elektroniko saileko arduraduna (dokumentazioa, PLC programazioa, martxan jartzeak eta abar.)
- CNC Siemens ezagutzak baloratuko dira eta baita euskara eta ingelesa jakitea ere. Berehala lanean hasteko prestutasuna izatea.

Interesatuak bidali zuen curriculumak admins@doimak.es helbide elektronikora edo 943 740 988 (Tomas) telefonora deitu.

Gabi
jateak

Eskerrik asko
egunero
gurekin
egotearren!



Hileko azken zapatuko ferixan baserriko barazki
eta produktuekin egindako pintxoak izango ditugu
ZATOZTE PROBATZERA!

Nafarroa enparantza z/g • Tel.: 943 741 230

IMHko kafetegia

Azkue auzoa - Tel.: 943 741 416

- EGUNEKO MENUA
6,25€-tik gora (10 bazkaritako bono txartelarekin)
- EGUNEKO PLATERA
3,75€ (14:00etatik 15:00etara ematen da)
- URTEBETETZE OSPAKIZUNA
3,75€ pertsonako
- PINTXOAK ETA OGITARTEKOAK
- ENPRESENTZAKO MENUA





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Koleora

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94



Gremioen GIDA